

Diploma banaketa 2014-2015 promozioako Ingeniaritzetako masterretako eta doktoregoko ikasleei

2016/05/27

Gaur ostirala, maiatzak 27, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak diplomak emango dizkie 2014-2015 promozioako 189 ikasleei. Zehazki, 14 doktoreri, ingeniaritzako tituluan master bat egin duten 174 ikasleri eta industria-ingeniaritzako ikasle bati emango zaizkie diplomak. Ingeniaritzako hainbat masterretako tituludunak dira, eta horietatik 52 emakumezkoak. Ekitaldi akademikoa Amaia antzokian izango da, 18:00etan.

Diploma-banaketa gaur egingo da, Goi Eskola Politeknikoko koordinatzaile nagusi Carlos Garciak inauguratuko duen ekitaldi-akademikoan. Ondoren, DANOBATGROUPEko Berrikuntzako zuzendari Antxon López Usoz-ek 'Industry 4.0: Aukera edo mehatxua?' hitzaldia eskainiko du diplomak banatzeko ekitaldian. Ekitaldia ixteaz Mondragon Unibertsitateko errektore Vicente Atxa arduratuko da.

